

Maitips

així és la vida



Maitips taldea Tarragonako Alt Camp eskualdekoa da. 2001eko abuztuan bildu ziren talde berrientzako egiten den VallsRock jaialdian parte hartzeko (Valls, Tarragona) eta han eman zuten estreinako kontzertua. 17 eta 18 urteko gazte multzoa hasi zen Maitips taldearen lehen urratsak ematen; taldekide berriak sartu, beste batzuk joan, eta horrela ibili ziren hasierako urteetan. Horrelako akatsak izaten ditu taldean lagun asko izateak. 2003an Maitips taldea estudioan sartu zen lehen maketa grabatzera, Jesus Rovira Lax'n Busto taldeko baxujotzailearekin batera, El Vendrelleko (Tarragona) Tivoli estudioan. 2005ean errepikatu zuten esperientzia eta estudioan sartu ziren maketa-lehiaketa batean kantuak aurkezteko. Lehiaketan ez zuten inolako saririk jaso, baina Maitips maila altuagoetara iristen ari zela konturatu zen. Besteak beste, Obrint Pas, Dr. Calypso, Discípulos de Otilia, Betagarri, Banda Bassotti, La Thorpe Brass, Mount Zion, Mesclat, Pirat's Sound Sistema, Trikizio eta abarrekin taularatu ziren. Maitips taldeak oreka aurkitu zuen diskoaren prestatzearekin batera, eta gogoia, arreta indar bilakatu dira. 2008ko martxoa, apirila, maiatza eta ekaineko asteburuak erabili dituzte diskoa grabatzeko. «Així es la vida» diskoa grabatzeko Bartzelonako La Ramona estudioa gerturatu dira eta han Dj Merey «Pirat's Sound Sistema», Dinky eta Juanton ibili dira soinu-teknikari lanak egiten eta baita nahasketak egiten ere. Ekoizpena Juanton «El Equilibrista» taldekoak egin du. Gero Bartzelonako «Hit Makers» estudioa joan eta Alexek egin du diskoaren masterizazioa. Musikari laguntzaile sorta ederra bildu dute lehen diskorako: Xabier Arakamak «Trikizio» taldekoak «Kaixo» abestiaren hitzak idatzi ditu, trikia jo eta ahotsa sartu du. Juanton «El Equilibrista» taldekoak abestu eta perkusioa jo du. Dj Merey «Pirat's Sound Sistema» taldekoak ahotsa eta efektuak egin ditu. Oski-Jah «Zulu 9:30» taldekoak abestu egin du. Ricard Cendrak eta Montse Marinék hitzak egin dituzte. Pau Garcia «Loku del Surdo» Maitips taldekide berria bihurtu da zuzenekoetan perkusioa joaz.

Maitips taldearen lehen diskoa «Així es la vida» ska, reggae eta rockaren nahasketa da. Skaren eta reggaeren arteko tirabira. Metalezko haizeen aldarrikapena testuekin batera. Kantu errazak entzuteko zein abesteko. Maitips taldea herriaren babesean, Maitips taldea talde herrikoi bihurtuz. Maitips taldearen diskoa dantzagarria eta jostaria da, asperraldiaren aurkako bitamina eta indar emalea. Maitips taldeak Kataluniako eta Euskal Herriko skaren eta reggaeren eragin zuzena du. «Kaixo» kantua euskaraz abesten dute.

«Així es la vida» futbolearen erabiltzen den «horrelakoa da futbola» topikoa bezalakoxea al da? Garai txarrak bizitzarako?

Egia da esaldi topiko baten aurrean geundeekeela baina baita norberak eman diezaiokeen esanahi gorpuztuena ere. Esaldi horri ez zaio jarrera konformista bat atxiki behar baizik eta zeharo kontrakoa. Esaldiak diskoko hitzetan ageri diren hainbat gai biltzen ditu: hala nola, mundu globalizatu honetan herrien kulturak mantentzeko dagoen zailtasuna, edo hiri askotako udalek alde zaharrei buruzko eskaintako axolagabekeria, edo industriari ematen zaion garrantzia lur-soro eta lan tradizionalen kaltetan, edo politikagintzak duen herriaren ezkutuan jarduteko ohitura eta ez herriarekin eta herriaren alde lan egiteko. Ez dugu uste garai onak edo txarrak daudenik, baizik eta norberak bizitzari eman diezaiokeen xedea; agian dagoen dagoenean utzi nahi du dena, edo agian gura duenaren alde eta bere ideien alde borrokatzeko prest dago.

Topiko gehiagoetatik tiratuz, Maitips taldea Katalunia skatalitikoaren beste ume bat da?

Bai, egia da Maitips osatzen dugun taldekideok hazi ginela musika mota hori entzuten eta baita gure herriko beste musika erreibindikatuak entzuten ere, baita Euskal Herriko musika ere. Bi herrialde hauek loturik daude, musika ibilbide parateloak eta elkartuak dituztelako. Maitips taldea musika eta kultura-baliabide hauen guztien nahasketa dela uste dugu, eta erritmo dantzagarriak eta itsaskorrak erabiltzen ditugu jendeari gure mezua helarazteko eta hausnarketa egin dezan guk esandakoaz edo kantatutakoaz.

Urte asko diskorik gabe. Errokarik al dauka Maitips taldeak? Soinu ona, abesti itsaskorrak, maiz jo...

Taldekideok antzeko bilakaera eraman dugu bai musikalki bai pertsona bezala, eta horrek eragin digu gauzak patxada handiz hartzea eta lehenasuna ematea geure arteko kontuak eta giroak ongi zaintzeari eta egiten ari garenenarekin ongi pasatzeari. Unea iritsi zenean erabaki genuen urrats bat gehiago ematea eta diskoa grabatzea. Diskoa eginda, nahi duguna da ahalik eta jende gehienarengana hurbiltzea gurekin ongi pasa dezaten, guk pasatzen dugun bezain ongi.

David Tudela (ahotsa eta gitarra)
Roger Montalà (bateria)
Xavi Pérez (baxua eta ahotsa)
Albert Segura (teklatura eta samplerrak)
Jaume Martínez (tronpeteta eta ahotsa)
Maxi Aradilla (tronboia)

ritxi aizpuru (2009ko otsailaren 22an)

